


# Gogoan hartu damutu baino lehen

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

## Munduan barrena dabiltzan gidariak



Juanek Europan barrena autoz bidaiatzeko plana egin du, eta ez dakit zer dokumentazio behar duen. Margaritaren semea Australian dago, Erasmus programarekin, eta Espainiako gidabaimena dauka. Munduan barrena dabiltzan 2,18 milioi espainiarretako bat da.

### Ezinbestekoa

Bai Juanek eta bai Margaritak dagokion jatorrizko dokumentazioa (ez fotokopia) eraman behar dute beti, eta helmugako zirkulazio-arauak jakin behar dituzte. Alegia...

**Zuretzat:** Gidabaimena eta NANA.

**Eta autoarentzat:** Matrikulazio-agiria, indarrean dagoen nahitaezko aseguru (edo Txartel berdea, automobil aseguruaren nazioarteko ziurtagiria, NBEaren babesa duena eta bisitatutako herrialdeko nahitaezko aseguruaren baliokidea dena), eta ordaindutako azken ordainagiria, Fitxa teknikoa, IAT eguneratua, eta Zirkulazio zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.

### Europan

**Europako Gidabaimen Bakarra** bakarra da, formatu zein baldintza aldetik. Beraz, inolako arazorik gabe gida dezakezu zure

gidabaimena baliaduna bada eta indarrean badago. Herrialde horietako batean bizi behar baduzu, helmugako Gidari Erregistroan inskribatu edo gidabaimen nazionalarekin alda dezakezu.

### Nazioarteko hitzarmenekin

Espainiak elkarrekiko nazioarteko hitzarmen ugari sinatu ditu. Horiek idatzitako modua- ren arabera, Espainiako gidabaimenarekin gidatu edo han bizi garen denboran trukatu ahalko dugu.

Ez badago hitzarmenik, Espainiako Kontsulatura jo behar da.

### Eta aseguruak?

Gogoan izan zure autoan bidaiatzen baduzu zure aseguruaren estaldurak muga gurutzatu ahala alda daitezkeela, eskusioak baitaude baldintza guztietan. Zer egin, orduan? Lehenik eta behin, zatoz gugana; zure baldintzak ikuskatu eta zein kasutan zauden estalita ikusiko dugu eta, beharrezkoa bada, bidaietarako asistentzia-aseguru bat kontratatuko dugu. Gidatzeaz, bidaiez eta esperientziez gozatzea ere bada ongi aseguratu-ta egotearen lasaitasuna.

#E2K  
BROKERNET

Red Nacional de  
Corredores de Seguros

Hileroko buletina  
Nº 37 / Martxo 2016

## Zure aseguruak, letra txirik gabe

Aseguru bat bi alderen arteko kontratu bat da: zure eta konpainiaren artekoa, eta kontratu guztietan bezala, eskubideak eta bete-beharrak daude. Adituak garenez, zure beharrak aztertu ditugu, eta kosturik onenean eskaini dizugu produkturik onena. Kontratu guztietan, argi eta garbi azpimarratzen dira baliogabetze-aldiak, bai erakundearen aldetik, bai eta aseguratu gisako zure aldetik ere; orain arte, bi hilabete ezartzen zituen Legeak bi aldeentzat. **2016. urte honetan**, zuretzat berri onak dakartzaten **aldaketa batzuk sartu dira indarrean**.

Orain, **hilabete batera murriztu da epea zuretzat, aseguratuarentzat**. Konpainiak ez badu nahi berriro, ordea, 2 hilabete lehenago jakinarazi behar dizu.

**Mendekotasun eta Heriotza polizak bereziak dira: zuk zeuk bakarrik, aseguruak, baliogabetu dezakezu kontratua, eta ez konpainiak.**

Baliogabetzeko modua eta aldiak argi eta garbi azpimarratu behar dira.

Eta kontratuak **tipografia bereziarekin** azpimarratuko ditu bermeen eskusioak eta mugak, gaizki ulerturik ez egoteko.



## Autonomoentzako pentsioak, argi eta garbi



Autonomoa zara, edo, beste hitz batzuekin esanda, ekintzailea, independentea, zeure nagusia. Zure "lanaren izerdiarekin" sortzen dituzu aberastasuna herrialdearentzat eta lanpostuak. Langile Autonomoen Federazioak (ATA) argitaratutako txosten baten arabera, autonomoek 207 lanpostu sortu zenituzten, iaz, egunean. Baina erretiroa hartzen duzunean, besteren konturako langile batek baino %30 gutxiago kobratuko duzu.

Badakizu zergatik? Autonomoen kotizazio sistema borondatezkoa delako eta besteren konturako langileena baino kotizazio oinarri txikiagoa hautatzen delako; izan ere, autonomoen %86k gutxieneko oinarriarekin kotizatzen dute, diru-sarreak zeinahi izanda ere.

### Konponbideak


Hainbat aukera dituzu, baina guk konbinatzea aholkatzen dizugu, bateragarriak

baitira.

Alde batetik, **handitu pixkanaka zure kotizazio-oinarria**, zure errendimendu garbiekin parekatuta. Horrela, prestazio gehiago jasotzeko zure eskubidea handituko da, bai eta zure erretiro-pentsioa ere.

Bestetik, **prestatu Pentsio Plan bat**. Erretiro pentsio publikoa osatzen lagunduko dizu, bai baitakigu ez dela nahikoa. Gainera, erretiratu aurretik erreskata dezakezu, baliaezintasun kasuan, edo zure familia babestu, heriotza kasuan.

Aukera on ugari daude zu bezalako langile autonomo on batentzat. Zergatik ez babestu behar bezala? Espezialistak gara, badakigu zer komeni zaizun. **Aseguru batek aseguratuta egiten zaitu eta guk segurtasuna ematen dizugu.**



### Semaforo gorri baten gisa makillatzen batzara, isuna

6.000 eurora arteko isuna eduki dezaketek 5 arau-hauste azalduko dizkizugu .

1. Leku babestu batean hondartzako hondarretan apartatzea: 6.000 eurora arte.
2. Atsedan-leku baten inguruan, erietxe batetik hurbil, adibidez, musika oso altu edukitzea: 2.400 eurora arte, auzokideak molestatzeagatik.
3. Azazkalak jatea, kopilotuari muxu ematea edo beste gidari bati hatzarekin keinu itsusi bat egitea: 80 euro.
4. Behar bezala jantzita ez joatea (oinutsik, kamiseta gabe, txankletekin edo takoi-ekin): 200 euro.
5. Gidatu bitartean makillatu edo jatea: 200 euro eta 2 puntu gutxiago.

Anekdotak

### Ikerketa

#### Urte hasierako denboraleak: eguraldi txarrari, aurpegi ona

Haizete eta ekaitzek astindu dute Espainiako mapa urteko lehen egunetan. Zorionez, bada Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak (CCS) estaltzen duen babes berezi bat.

Urtarrilaren 3tik 11ra, ezohiko ekaitz ziklonikoak harrapatu zituen herrialdearen iparraldearen

erdia eta Mallorcako uhartea. Partzuergoak jakinarazi duenez, "udalerrri horietako ondasunek haizeteen ondorioz izandako kalteak ordainduko ditu".

Estaladura mota hauekin, lasaiago bizi gara guztiok.

